

BILBOREN 700. URTEURRENEKO EKITALDI INSTITUZIONALA EGIN ZEN UDALETXEAN, BIHARKO FESTAREN ATARI GISA

Atzo urtebetzea, bihar jai handia

■ Politikari ugari batu ziren udaletxeko ekitaldian, hala nola Juan Jose Ibarretxe eta Juan Maria Atutxa

■ «Kosmopolita eta modernoa izan nahi duen» hiriaren 700 urteen goraipamena egin zuen Iñaki Azkuna alkateak

■ Hiria sortu zeneko urteurrena atzo izan bazen ere, udaletxeak biharko antolatu du festa, lanegunean ez egitearren

Iker Gomez / Bilbo

BIZKAIKO hiriburuak 700 urte bete zituen atzo, ekainaren 15ean. Urteurreneko jai handia, oster, bihar egingo da, baina atzo ekitaldi instituzionala egin zen Bilboko udaletxean, Iñaki Azkuna alkatea buru zela. EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxe, Eusko Legebiltzarreko lehendakari Juan Maria Atutxa eta Bizkaiko diputatu nagusi Josu Bergarak Hiri Gutunaren erreproduktzio bana jaso zuten alkatearen eskutik. Ibarretxerekin batera sartu zen udaletxera, halaber, Espainiako Gobernu Kultura, Kirol eta Hezkuntza ministroa, Pilar del Castillo.

Udaletxeko areto arabiarrean izan ziren, halaber, Jaurlaritzako sailburu Sabin Intxaurre, Mari Karmen Garmendia eta Gabriel Inclan, Xabier Markiegi arartekoa, Carlos Garaikoetxea eta Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak eta Ricardo Blazquez Bilboko gotzaina. Martxelo Otamendi EGUNKARIAko zuzendaria, Jose Ignacio Lopez Arriortua enpresaria eta Alfonso Alonso Gasteizko alkatea ere izan ziren ekitaldian.

Iñaki Azkunak Bilboko Hiri Gutuneko aurreneko hitzak irakurri zituen hitzaldiaren hasieran, eta hiriaren 700 urteen errepaso egin zuen ondoren. «Bilbotarren irmotasunak sortu du hiri hau, moderno eta kosmopolita izan nahi duen hiria, iragan ospetsua ahaztu gabe etorkizunean ilusioa piztuko dituen proiektuen bilgune izan nahi duen hiria», esan zuen. Indarkeriaren aurkako eta «askatasunaren, tolerantziaren eta ideien errespetuaren» aldeko hitzak ere izan zituen alkateak. «Libre izateko eta bizikidetzat beste edozein anbizioren aurretik jartzeko gauza baldin bagara, Bilbo beste 700 urte eta beste askoz gehiago biziko da», adierazi zuen hitzaldi amaieran.

Udaletxeko ekitaldiaren



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Iñaki Azkuna alkateak (erdian) eta segizioak hiriko kaleetan barrena udaletxerainoko ibilbidea egin zuten atzo.

aurretik, Diego Lopez de Haro hiriko fundatzaileari lore eskaintza egin zioten Bilboko Plaza Zirkularrean.

Jaiegun handia bihar egingo da

Urteurren eguna atzo zen arren, bihar ospatuko da 700. urteurrena ospatzeko jai handia; lanegunarekin ez egokitzeko aldatu dute. Udaletxeak 200 milioi pezeta erabiliko ditu festaren antolakuntzan (8 milioi libera inguru); hala ere, hasieran diru gehiago beharko zutela pentsatu zuten.

Bilbora etorri nahi dutenentzat erraztasun ugari izango dira bihar. Metroa, Bilbobus, Bizkaibus, edota Renfek eskainiko dituzten zerbitzuak doan izango dira. Helburua, autoa etxean uztea izango da. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera trafikoa moztu egingo dute jaia ospatuko den gunean. Goizaldeko 02:00etan autoak berriro ibili ahal izango dira Arenaletik.



XOUSA SIMAL

Jai handirako prestaketak egiten aritu ziren atzo Bilbo osoan. Arenalean, esaterako, Erdi Aroko Azoka egingo da bihar.

On Diego hirira itzuliko da bihar

■ BIHAR jaia arratsaldeko 18:00etan hasiko da, ordu horretan Euskaldu-na jauregiaren kanpoaldean ongietorriaren kontzertua antolatu baitute. 19:00etan, XXI. mendearen agurraren ordua izango da, Guggenheim museoaren kanpoaldean. Jarraian, 19:15ean, Zubi Zuri pasarelan, XX. mendean Bilbo Dantzan ikus-kizuna hasiko da.

Hurrengo ekitaldia 19:30ean, udaletxe aurrean egingo dute; Bizkaiko Agurra, alegia. Ospakizun hori herri dantzez eta musikaz beterik egongo da. 20:30ean Musika Kutxa izango da Merced zubian. Gauean, Kepa Junkeraren kontzertuak eta Ibaizabalaren su olatuak argia emango diote gau berezi honi.